

# ONDASUNA BANATU, LEHENIK BIZITZA

## ***Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren aldarrikapen fiskalak 2020-2021***

Gaur egungo testuinguruan, zor publikoak gora egingo du. Ez hainbeste aurrekontu-hornidurak handitzen direlako, baizik eta diru-bilketaren beherakadagatik.

Zerga-sistemaren diru-bilketarako gaitasuna eta progresibitatea indartu behar dira, ez egoeraren arabera, baizik eta behin-betiko, diru-sarrera publikoen bolumena handitzeko, zerga-ekitatea eta zerga-progresibitatea handitzeko eta banaketa-gaitasuna hobetzeko.

Helburu horiekin, honako hauek proposatzen ditugu:

**1. Aberastasunaren jabetza zergapetzea:** Gaur egun, aberastasunaren gaineko fiskalitatea hutsala baino ez da, eta, beraz, premiazkoa da aberastasun metatuaren gaineko zerga eraginkorra izatea. Helburua: baliabide publikoak berreskuratzea, aberastasun handiei presioa eginez.

- Berehala, errekaru espezifiko bat ezartzea, progresiboa izango dena eta %1 eta %10 artekoa.
- Zerga aldatzea: ondarearen gaineko zergaren tarifa bikoiztea; hobariak kentzea eta salbuetsitako gutxienekoa 350.000 eurotan kokatzea. Zerga honen eta PFEZren zerga osoaren muga ezabatzea.

**2. Sozietateen gaineko zerga:** lortutako etekinen arabera ere ordaindu behar dute enpresek.

- Zergaren kenkari eta pizgarri fiskal guztiak ezabatzea.
- Zerga tasa %35era igotzea.
- Errekargu berezi bat ezartzea Sozietateen gaineko Zergaren aitortzean, 2019ko irabazien %20koa.
- Zerga erabiltzeari uztea lurraldeen arteko lehia fiskala elikatzeko, eta zerga-paradisuen eta etekinen desbideratzearen aurkako borroka gogortzea.

**3. PFEZ progresiboagoa:**

- Kapitalaren tarifa espezifikoa kentzea, errenta-iturri guztiek tratamendu bera jaso dezaten eta karga progresiboko eskala berari lotuta egon daitezen.
- Zergaren progresibitatea handitzea, gehieneko tasa marjinala % 60ra igoz eta tarifa-tarteen kopurua handituz.

**4. Oinarrizko produktuei BEZa murriztea** eta luxuzko produktuetan BEZa handitzea.

**5. Zerga-arloan erabakitzeak eta ezartzeko gaitasun osoa** aldarrikatzen dugu.